



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

609. zkia.

XV. urtea

2007ko apirilaren 13a



Pedrusco Futbol Taldeak 10 urte bete ditu



Elgoibarko Institutua

Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

www.elgoibarbhi.net

BATXILERRAREN AURKEZPENA

Gurasoei zuzendutako
bilera informatibo irekia

Apirilak 19, 19:00etan
Mekako aretoan

Ikasleei zuzendutako
saio informatibo irekia

Apirilak 25, 16:00etan
Mekako aretoan

ELGOIBARKO BH INSTITUTUA 2007/08 IKASTURTEA



Ahaztu zaitez akaro eta bakterioetaz!



MASH

Nagusi zein
umeentzako
produktuak ditugu

**Mash Hollofil Allerban-ekin
lasai egingo duzu lo!**



Koltxoiak ere
baditugu.

Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com



AITZOL GARMENDIA



SARE GURRUTXAGA

ZOZOAK BELEARI...

Sare,

Eliza kontuetan jarduteko sasoi hoberik ba ote? Gainbeheran ei zagon Eliza Katolikoa. Munduko multinazionalik handiena, mendeetan zehar merkatu garrantzitsuetan lehena edo/eta bakarra izan dena, erorketa librean behera.

Paralelismo enpresarial bat eginda, esan ziteken frankizia monumentala dela. Gidaliburu beretik errezo, kantu eta kontuak, zorionez bizirik dirauten hizkuntzetan. Arropa eta dekorazioa ere estilista beraren eskutik. Lokalak edonon, eraikuntza ederrak eta gainera herriko leku onenetan. Akustika zoragarria, freskoak neguan eta epelak udan. Agian aukiak ditun deseroso xamarak, batez ere Jaunaren aurrean belaunikatzeko.

Orduan, salbazioa eta bizitza etemoa ez ote ditun guretzat produktu interesgarriak? Agian interneten besteren batek merkeago salduko ditin?

Gurekin saiatu ditun baina ez gaitziten engantxatu. Beste generazio bat gaingidituko ote ditin? Mentalitatea eta mezua aldatzen ez diren artean, zaila ikusten dinat nik. Ratzingerrek eboluzioaren teoria ere kuestionatu omen din. Zergatik izango dun? Bestetik ez bada, marketing ariketa on bat ere ez legoke soberan hurrengo kontzilioan.

Amama zenak honelako blasfemiak esaten entzungo banindu... Aitaren Semearen eta ...

«Gainbeheran
ei zagon
Eliza
Katolikoa»

AITZOL

«Gure
belaunaldikoen
txanda pasa
zaio elizari»

SARE

...espiritu santuaren izenean AMEN!
Ondo ikasitako gauzak ez omen dituk ahazten. Eta nik oraindik ere erreztatzen bazekiat, aspaldi erreztatu ez diadan arren.

Nire aste (ez)santuari ukitu erlijiosoa eman dion bakarra izan haiz, Aitzol. Beno, ukitu ez-erlijiosoa, blasfemia akaso, baina halere eliza hizpide.

Garbi zagok gure belaunaldikoen txanda pasa zaiola elizari.

Hik dioken legez, ez gaitztek engantxatu. Mentalidade kontua ote? Akaso.

Erliñoak erlijio diren aldetik errespetagarriak dituk niretzat. Bakoitzak bere fedeari eutsiz bizitzari zentzu bat aurkitzea. Baina eliza gaur egungo mentalidadetik kanpo geratzen hasi duk hainbat alorretan.

Ez ditiat inondik inora zaku berdinean sartzen eliza eta elizara joaten direnak edota elizara joaten ez diren fededunak. Baina elizaren izenean hitz egiten dutenei entzutean erakitzen diagu elizarekiko diagun ikuspegia. Eboluzioaren teoria kuestionatuz eta erlatibismoaren diktaduran bizi garela salatuz.

Hobe genikek guztiok santu itxurak egiteari utzi eta benetako baloreak eguneratuko bagenitu.

Pentsatzen diagunarekin koherenteak izan eta marketinga beste baterako uztea.



ELIZARA ERRENKA, TABERNARA LASTERKA



Esaera zaharra

Plaza Txiki inguruko aparkalekuari buruz

Aurreko BARREN irakurtzerakoan, haritu egin ninduen baten batek Plaza Txiki inguruan egindako astakeria txalotzeak. Nere inguruan entzun ditudan iritzi guzti guztiak, hor egindakoaren kontra-koak dira.

Autoa daukaten pertsonen nahia aparkatzea da, ez kolore polittekin eta ondo asfaltatuta egindako aparkaleku zabal eta ederrak erabiltzea gaur, eta bixar eta etzi ezin erabili tokirik ez dagualako.

Aparkaleku baten helburua ez da politta egotia, autoak edukitzia baizik, eta ahal diren gehienak gainera. Autoa daukagunok, Plaza Tikixa eta San Franzisko itxurri inguruan aparkatzeko tokirik ez daukagunian badakigu zergatik dan.

Han ibiltzen geranok badakigu orain 20 auto gutxiago sartzen direla lehen baino. Ah! hori bai, oso dotore ipinitta eta marrak ondo pintatuta, baina... 20 auto gutxiago. Helburua auto gutxiago sartzeari bazan, ondo bete da. Zorionak!

I.A.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.630 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **San Pedro auzoan motorrak oso azkar ibiltzen dira:** "Gure auzoak motorren aparkalekua dirudi azkenaldian, herri osoko motorrak bertan aparkatzen direla ematen du. Jendeak leiho aurrean lagatzen digu motorra, ia-ia etxe barruan. Oso deserosoa da leihora atera eta muturren aurrean motor bat ikustea. Asteburuetan arazoa larriagoa da, gainera. Lasai lo egiteko bi egun dauzlagunean, goizeko 8:00etarako hasten da jendea motorrekin zarata ateratzen. Gainera, oso azkar ibiltzen dira, eta auzoko zenbait pasabide oso estuak dira. Metro eta erdiko pasabide bat dago, etxebizitzaren ate parean eta berdin zaie, ez dute abiadura murrizten. Susto bat baino gehiago izan dugu bizilagunok, eta zerbait egin behar dela iruditzen zaigu".

• **Hilabete inguru darama kotxe batek zepoarekin Ubitarte inguruan:** "Ez dakit zenbat denboran egon daitekeen kotxe bat zepoa jarrita, baina Ubitarte inguruan denbora mordoan dago kotxe bat geldirik, zepoa jarrita. Hilabete inguru darama hortxe, aparkaleku bat kentzen. Herri honetan daukagun aparkaleku arazoa ikusita, lotsagarria da kotxe bat hainbeste denboran horrela edukitzea".



• **Garbitzaileek kristalezko botilak Arregitorre kaleko pasealeku zaharrera bota zituzten:** "Astearte goizean udaletxeko garbitzaileek izan zuten jarrera tamalgarria izan zen. Arregitorre 10 zenbakiaren atzeko aldean alkohol botila batzuk zeuden eta jaso beharrean, Arregitorren kaleko pasealeku zaharrera bota zituzten. Ingurune honetan ume txikiak eta txakurrak ibiltzen dira jolasean, eta min hartu dezakete. Portaera lotsagarria izan zen. Arregitorreko bizilagunok espero dugu honen kontrako neurriak hartuko direla".

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNIOREN
Luma

Andregaiia

Lantegitik irten eta zuzenean joan zen etxera. Han aurkitu zuen bera, belusezko besaulkian eserita, ohi bezala, isil-isilik. Langilea nekatuta zegoen. Sukaldean sartu eta garagardo lata hartu zuen hozkailutik. Besaulkian bere ondoan eseri eta garagardoa edateari ekin zion. Lanean arazoak zeuzkala esaten hasi zitzaion aldamenekoari; lantegia itxiko zuten zurrumuruak zebiltzala eta hori zela-eta ez zegoela lasai. Lehenengo garagardoa berehala bukatu zuen eta beste baten bila joan zen sukaldera. Itzultzean bere gorabehera gehiagoren berri eman zion andregaiari. Animo aldetik baju samar zebilela eta dena ilun ikusten zuela. Ondokoak, ordea, imo eserita eta mutu jarraitu zuen, estatua bat bailitzen. Bigarren garagardoa bukatu zuenean ohera joatea erabaki zuen, ez baitzeukan afaltzeko batere gogorik. Zutik jarri eta berarekin eraman zuen ohera ondoan zeukan maniki sexya, peluka eta gutzi. Hari estu besarkaturik loak hartzen saiatu zen.

Jon Eugi

BOTAINK!

Herri euskalduna iruditzen al zaizu Elgoibar?

Hau da elgoiBARREN.neteko Botaink atalean zabaldu genuen galdera eta komentario gutxi batzuk jaso nahi izan ditugu.

Gazte: "...danok dakigu azken urte hauetan euskerian erabilera asko gutxitu dala. Arrazoi nabarmenena? Jadanik euskera ez da hain beharrezkoa eta gainera ez zaio euskerari hainbesteko garrantzixa ematen".

Antonio: "Euskal Herriak ez du egoera elebidunik bizi, egoera diglosikoa baizik". *Ez gara ari gaztelania eta frantsesa berdintasun osoz erabiltzen diren herri bati buruz, 600 milioi hiztunetik hitz egiten duten bi hizkuntza eta 600 mila hiztunek hitz egiten duten bati buruz, baizik. Hau da, mila aldiz euskal hiztun gutxiago existitzen dira.*

Abel: "Elgoibar herri euskalduna den? Hizkuntza zabaldua izan arren, oso mehea da (Atxagan esandakoa gogoraziz), eta kontzentrazio gutxikoa. Biziraun behar badu, hori baino gehiago erabili behako dugu".

Danok euskaraz: "Nere iritziz, Elgoibarren euskararen erabilera jaisten ari da, umiak entzun besterik ez dao, txiki-txikitatik lagun artian erderaz hitz egiten dabe eta penagarixa iruditzen zait".

www.elgoibarren.net

Oraindik ez al duzu **Albisteak e-postaz jasotzeko** fitxa bete?



Oso erraza da,
eta egunero bi notizia jasoko dituzu.



www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



[AKORDATZEN NAIZ]



MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

«Futbola»

Sevillatik Osasunara jua nintzan. Bigarrego urtian atara genduan kanpeoi segundan eta primerara ixo ginan 55-56 denboraldixan. Badakizu zer izan zan premixua? Gaur egunian milioiak ematen ddittue, baina gure premixua kartera txiki bat izan zan. Pasakallia kanpo futboletik herrira eta kartera txiki bat. Txaluak jaso eta akabo. Bertan urtian, kanpeoi atara eta kopia jokatzera jua ginan. Coruña eliminau genduan eta gero Bilbon kontra. Etxian enpate eta San Mamesen 4 eta 0 sartu ziuven eurek.

Gero Trofeo bat jokatzera jua ginan Orensera. Salto bat egin naban eta orkatillia izurra. Osasunakuak ez zaken ganorazko medikurikan eta esan zian andriak trena hartu eta Bartzelonara juteko.

Doctor Naves zan famosua orduan. Orkatillan maleolo hazurra apurtuta eta separauta nakan. *Que te han dicho estos? Que no tengo nada, que tengo cuento.* Berak operau zian.

Hasi nitzan atzera jokatzan, baina ordurako 32 urte nakazen, 33ra bidian. Eta Osasunak erretzena egin zaban, kontratua amaitzen nabala eta karta de libertad. Etxera 32 urtekin.



Gero Elgoibarren jokatu naban urtebete, terceran. Hemen ere orkatilla oindiokan gaizki nakan, eurixa egitten zabanian, lokatziakin-eta, minbera-minbera... erretirau egin nintzan.

Gero jubenilak entrenatzen hasi nintzan bi urtian, baina nazkatu nitzan. Kriston tratua hartzen naban. Ezin nitzan geldirik egon, eurekin jolasian egin eta gero taillarrian 10 ordu lan egin bihar... apurtuta amaitzen naban. Esan zian andriak, "bale eh, lehenengo osasuna da".

[GURE BERBAK]

Fonologia (4)

Gaur (eta datozen astietan) kontsonantien gaiñian jardungo dogu. Txistukarixen inguruko fenomeno bat aztertuko dogu (kontsonante txistukarixak s, z, x eta ts, tz, tx dira). Kontua da aspaldi samarretik gertatzen dala txistukari batzuen arteko nahasketia, ahoskatzerakuan.

Beti eman izan digu atenziua gure artera Goierri ingurukoren bat etorri eta S-ak eta Z-ak ondo bereizten entzutea: [esaiozu] aditzian, adilibidez, ahoskera desberdiña dauke horko bi txistukarixak, goierriarraren ahotan. Gure kasuan, ez. Aspaldi samarretik, gaiñera. Bi txistukari frikari (s eta z dira frikarixak) nahastu egitten dira, eta berdin ahoskatzen dittugu bixak:

Ezagun ➔ [esagun]

Esan ➔ [esan]

Zakixan ➔ [sakixan]

Neutralizaziua da hor gertatzen dana, bi soiñu ziran sasoi batian, eta gaur egun hor zaguan oposizio hori neutralizatu egin da, eta bat egin dabe.

Gauza bera (baiña alderantziz) gertatzen da txistukari afrikatuekin (ts eta tz). Hauen kasuan, TZ ahoskatzen dira bi kontsonantiak:

atso ➔ [atzo]

atzo ➔ [atzo]

etsi ➔ [etzi]

etzi ➔ [etzi]

Jesus Mari Makazaga

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

PEDRUSCO FUTBOL TALDEAREN 10. URTEURRENA

HASIERAKO ILUSIOAK PIZTURIK DIRAU

Elgoibarko Pedrusco futbol taldeak 10 urte bete ditu aurten. Zortzi denboralditan, erregional kategoriako lehen mailan jokatzeko aritu da futbol talde elgoibartarra. Aurten denboraldia bukatzeko bost jardunaldi baino ez zaizkio geratzen eta sailkapen orokorreko 14. postuan dirau, Segura K.E. eta Sanpredotarra C.F. taldeen aurretik. Hori dela eta, taldearen helburu nagusia, kategoriari eutsi eta denboraldia salbatzea da. Orain artean jokaturiko 26 jardunaldietan zehar, Pedruscok, etxean, 4 partida irabazi, 2 berdindu eta 7 galdu ditu. Etxetik kanpo, bestalde, 3 neurketa irabazi, 3 berdindu eta 7 galdu ditu. Pedrusco futbol taldearen ibilbideaz eta egungo egoeraz hitz egiteko, gaurkoan, Iban Quintana (taldeko jokalaria) eta David Conderekin (jokalaria ohia) izan gara.

PEDRUSCO FUTBOL TALDEAREN

HASTAPENAK

Pedrusco futbol taldearen aurreneko ekipoa, futbolarekiko zaletasuna zuten Sigma auzoko lagun koadrila batek osatu zuen, orain dela 10 urte. Horrela azaldu digu, David Condek, 9 urtez Pedrusco taldean jokatzeko aritu den futbolari ohia: "bere egunean, Urasandi eskolako zelaian jolasten genuen eta gu baino zertxobait zaharragoak zirenek futbitoan jokatzeko zuten Pedrusco taldean. Gu ere, adinean aurrera egin ahala, beraien taldean bateratzen joan ginen. Jende askok nahi zuen jokatzeko eta eskaeraren aurrean, federatutako talde bezala, funtzionatzen hastea erabaki genuen".

Elgoibarren gisa honetako futbol talde bat aurrera ateratu zuten aurrenekoak izan ziren Pedrusco taldekoak; gure herrian, sekula futbol talde batek ez baitzuen hamaikakorik osatu, Elgoibar C.D. futbol taldeaz aparte eta beste zenbait herritan ez bezala. Urrutirago joan gabe, Eibarren, non, Eibar futbol taldeaz gain, Urki, Eibar-tarrak eta Beti Sutan taldeak ere baziren.

Pedrusco taldekoek, behin hamaikakoa osatuta, eta ekipoa aurrera ateratzeko garaian, Jose Maria Orueren laguntza eduki zuten. Urte guzti hauetan bera izan da futbol taldeko presidentea eta horrela izaten jarraitzen du. Bai David, bai Ibanen iritziz, Orueren laguntza eta ekarpena handia izan da taldearentzat.

PEDRUSCAREN 10. URTEURRENA

Davidek jakinarazi digunez, aurten taldearen denboraldi hasierako helburua, bete da, 10 urte betetzea, hain zuzen ere.



“Helburu nagusia kategoriari eutsi eta denboraldia salbatzea da”

IBAN QUINTANA

Atzera begiratuz, Pedrusco taldea jokatzeko hasi eta bigarren urtean, bigarren erregional mailatik, lehendabiziko mailara igo zela gogorazi digu Davidek: "gaur hartan, taldean 28-33 urte bitarteko-

ek ekin genion jokatzeari. Urteak pasa ahala, ordea, jendea taldea uzten joan zen, arrazoi desberdinak tarteko: adina, lesioak, seme-alabak... Jokalari gabeziaren aurrean, Pedrusco taldeak bizirautea zaila ikusten genuen. Ildo honetan, Ibanek zera gaineratu du: "iaz, taldea ez osatzeko tenorean aurkitu ginen, jende faltagatik. Denboraldi hasieran, hamahiru pertsona baino ez geunden eta ez genuen entrenatzailerik". Hala ere, egoerari bira ematea lortu zuten. "Jendearen bitartez, talde on bat osatu eta entrenatzailea lortu genuen, bide batez, eskerrak eman berari, Santamariari", adierazi digu Ibanek.



LORPEN AZPIMARRAGARRIENAK

Daviden hitzetan, hiru momentu azpimarratu daitezke Pedrusco futbol taldearen ibilbidean: "lehen erregional mailara igoera, 98-99 denboraldian, kopa finaleko partida bat, galdu genuena eta lehen erregional mailan bigarren lekuan sailkatu gineneko denboraldia". Laburbilduz, "erregional mailan entrenatu dugun zortzi urteotatik, denboraldirik eskasena aurtengoa da, baina salbatzeko itxaropena badugu".

PEDRUSCOREN EGUNGO EGOERA

Ibanen hitzetan, jokalaria gazteak falta dira taldean. Honen harira, Davidek, jende gazteak ez duela futboleko jokatzetik nahi dio. Ibanek, berriz, lehen, kirola egiteko zaletasun handiagoko zegoela aipatzen du. Modu berean, jakin badakite, aukeran, hasieratik C.D. Elgoibarren jokatzeko

hasi eta kategoriaz kategoriaz, igotzen joan diren jokalarien ilusioa, ondo badabil-tza behintzat, egunen batean, Elgoibarrekin hirugarren mailan jokatzeko dela eta honek, beren kaltean joka dezake agian, pixka bat.

**“Jende gaztea
behar da
taldeak
biziraun dezan”**

DAVID CONDE

Daviden esanetan: "18-24 urte bitarteko jende gaztea behar da taldeak bizi-

raun dezan. Orain taldean gaudenen ar-tetik, nik 28 urte beteko ditut eta gaztee-netakoa naiz; gehienek, beren 30ak badi-tuzte, nahiz eta taldera etorri diren azken futbolariak gazteagoak izan". Honenbes-tez, Ibanek gazteak animatzen ditu: futbo-la gustuko dutenak, beste taldeetan joka-tzen aritu izan direnak edo areto futbole-an ibilitakoak, Mintxetara igo daitezeko en-trenatzerara, beti ere, azken hitza, entrena-tzaileak izango duelarik.

Gainerakoan, azpimarratzekoa da betidanik, taldean egon den giro ona: "tal-dekideen artean oso harreman ona dago, mundu guztia ongi konpontzen da. Urtero, denboraldi bukaeran, goizez San Migele-ra bizikleta igoera egiten dugu eta gawe-an, afari bat antolatzen dugu; jokalaria eta jokalaria ohiak, guztiak gonbidatuz. 40-50 lagun biltzen gara".



PEDRUSCO TALDEAREN ZERTZELADAK

- **100 jokalaria** pasa igaro dira Pedruscotik.
- **Taldeko pitxitxia:** Carlos Conde.
- **Jokalaria beteranoena:** Antonio Gomez (10 urte). Ondoren, Arkaitz Leiaristi eta David Conde.
- **Bost entrenatzaile** izan ditu Pedruscok: In-txausti, Moskote, Ronkina, Santiago eta gaur egun, Santamaria.
- **Etxe babesleak:** Bere egunean, Oraiko izan zenr. Gaur egun, Azkena eta Lanbroa dira.
- **500 bazkidetik** gora ditu gutxi gora behera, taldeak.

[PROTAGONISTA]



Gemma Monreal

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak erakusketa berri bat jarri du ikusgai. Oraingoan herritik kanpo izan da erakusketa, Soriako Burgo de Osuma herrian hain zuzen ere. 32 lanek osatutako erakusketa izan da. Oraindik ere badago Gemma Monrealen erakusketa hau bisitatzeko aukera; apirilaren 15era arte egongo baita zabalik. Honetaz aparte, margolari elgoibartarrak koadro bat oparitu die Elgoibar BH Institutuko 2. Batxilergoko ikasleei, ikasbidairako dirua lortu dezaten. Koadro hau, San Bartolome kaleko Arrieta jantzi-dendan dago ikusgai.

[NOTIZIA]

500 sinadura behar ditu Elgoibarko Ezker Abertzaleak Hauteskundeetara aurkezteko

Maiatzaren 27an egingo diren Udal Hauteskundeetan parte hartu ahal izateko sinadurak bilzen hasi da Ezker Abertzalea Hego Euskal Herriko herri guztietako udaletxeetan eta sinadura bilketarako egokitutako notario bulegoetan. Gure herrian Elgoibarko Abertzale Sozialistak izena edukiko luke sortuko litzatekeen herri plataformak. Lortu beharreko sinadura kopurua herriak dituen biztanleen arabera da. 10.000 eta 50.000 biztanle dituzten herrietan 500 sinadura behar dira. Hauxe da Elgoibarren kasua, 10.538 biztanle baititu.

Non sinatu

Sinatzeko aukera desberdinak egongo dira: Udaletxeko idazkaritzan apirilaren



10etik 20ra bitartean sinatu ahal izango da, asteleheneetik ostiralera eta zapatua, hilak 14, 9:00etatik 13:00etara. Notaritzan, bestalde, martitzena 10, eguena 12 eta martitzena 17, arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

[ZENBAKIA]

30.000

Udal Kirol Patronatuak 30.000 euro erabiliko ditu Olaizaga Kiroldegian hobekuntzak egiteko. Dagoeneko, gizonetzkoen sauna berri dute eta muskulazio gelan zoru berria eta makina gehiago jarri dituzte, besteak beste. Igerilekuan eta nesken saunan ere berrikuntzak egingo dira.

asteko [ARGAZKIA]



Aste Santuko oporren ostean, indarberrituta aurkitu ditugu jubilatutak. King-Kong azpian, nor baino nor, lehia bizian ikusi ditugu aste honetan. Jubilatuen Egoitzen arteko Gipuzkoako Txapelketan parte hartzen ari dira, Debabarrenakoak Urola Kostakoena kontra. Toka, igel-jokoa, karta jokoa (musa, tutea, briska, punttua, seiko urrea, eskoba, txintxon e.a), partxisa taldeka, billarrean edota dominoan neurtu behar dira. Elgoibarko saioko irabazleek finalerdiak jokatu dituzte hil honen bukaeran Altzan eta finala ere bertan izango da.

Altzolako zabor bilketa zerbitzua hobetzeko eskatu du Zubibai Elkarteak



Zubibai Elkarteak aurrera darrai Altzola hobetzeko helburuan eta oraingo honetan eskaera oso zehatza aurkeztu dute udaletxean. Altzolako zabor bilketa, garbiketa eta birziklapen sistema hobetzeko eskatu diote Udalari. Gaur egun astelehenetan egiten da garbiketa Altzolan. Goizean goiz joaten da garbitzailea, eguna argitu baino lehen eta farolen argiaz baliatu behar izaten du bere lana egiteko. Gainera, ez ditu auzoko kale guztiak garbitzen. Bestalde, makina garbitzailea zapatuetan joaten da Altzolara, kalean

auto gehien dagoen egunean eta leku askotatik pasatzeko arazoak izaten ditu. Zubibai Elkarteok garbiketa sarriago egitea eskatzen dute, eta auzo guztia garbitzea. Bestalde, zabor kontenedoren egoera ere aldatu egin behar dela diote, auzotarrengandik gertuago jarri eta horman sartuta, autoentzako lekua egiteko.

Markesina berria

Mendarorako norabidean marquesina berria jartzeko eskatu dute. Foru Aldundiak dirulaguntzak emango ditu honetarako.

[MOTZ-MOTZIAN]

Hautesle zerrendak ikusgai herritarren arreta bulegoan

Datorren maiatzaren 27an Udaletarako eta Foru Aldundirako hauteskundeak direla-eta, Elgoibarko Udalak hautesle zerrendak ikusgai jarri ditu herritarren arretarako bulegoan. Edozein aldaketa edo erreklamazio egiteko azken eguna apirilaren 16a izango da. Astelehenetik ostiralera goizeko 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

Bizkarreko arazoei buruzko hitzaldia

Zubibai Elkarteak antolatuta, Charles Marmier doktore frantsesak bizkarreko minei buruzko hitzaldi bat eskainiko du datorren apirilaren 17an Altzolan. Bizkar hezuraren funtzioak, diskoei kalte egiten dieten faktoreak, bizkarreko mina sortzen duten arazoak eta min hori ebitatzeko aholkuak eskainiko ditu besteak beste, doktoreak. Hitzaldia arratsaldeko 19:30ean izango da Altzolako jubitauen egoiztan.

2007ko danborrada batzordearen oharra

Elgoibarko Danborradaren Batzordeak jakinarazi digunez, aurtengo Trinitate jaietarako danborradarako entseguak apirilaren 24an, asteartean hasiko dira. Gaueko 21:00etan izango da partehartzaile guztientzako aurkezpen ekitaldia. Antolatzaileek partaide guztiei luzatu nahi diete aurkezpen horretara azaltzeko deia. Ondoren, lehen entseguari ekingo zaio abesti eta pieza berriekin. Urtero bezala, Merkatu Plazako goiko solairuan egingo dira entseguak. Oraindik ere, herritarren batek parte hartu nahi badu, plaza batzuk libre daudela jakinarazi digute Danborradaren Batzordeko kideek. Interesatuek 615794904 telefonora deitu dezakete.

Brontzeko domina Mausitxako gaztarentzat 'World Cheese Awards' sarietan



Jesus Mari Ansolak Mausitxa basean egiten duten Idiazabal gazta aurkeztu zuen "World Cheese Awards" sarietara. Londresen egiten den lehiaketa honetara 2.000 gaztatik gora aurkeztu ziren eta Elgoibarko gaztagileak brontzeko domina jaso zuen babestutako gazten atalean. Guztira, Idiazabal Jatorri Deiturako gaztek 12 domina irabazi dituzte aurtengo World Cheese Awards lehiaketa prestigiotsuan. Besteak beste, Ameriketako Estatu Batuetako 250 gazta eta Hegoafrikako 50 gazten aurka lehiatu ziren elgoibartarrak.

Inkesta

Inkesta baten arabera, Ibarretxe, Perez Reverte edo Zapateroekin joango ginateke euskaldunak zerbeza bat hartzera.

Norekin hartuko zenuke gustura zerbeza bat?

JUAN SANCHEZ
Siderometalurgikoa
32 urte



“Bartzelonako Leo Messi futbolariarekin. Oso ondo jokatzeko du futboleko. Oso gustatzen du futbola. Realeko bazkide naiz eta aurten sufritzea tokatu zaigu.”

IBON GOIKOETXEA
Ikaslea
11 urte



“Ronaldhiñorekin, baina nik Kas bat edango nuke, ez zerbeza. Ligako futbolariarik onena da. Bartzelonak liga irabazteko aukera handiak dituela uste dut.”

BRAULIA MORENO
Etxekoandrea
51 urte



“Brad Pitt-ekin. Oso guapo da eta aktore moduan ere gustatzen zait. Babel pelikula asko gustatu zait. Dena dela, elkar ulertzeko zailtasunak izango genituzke.”

JOSE LUIS INES
Obrako langilea
33 urte



“Neska politen batekin, Elsa Pataky edo Jordanekin, adibidez. Bestela, umoregile batekin ere gustura joango nintzateke, zerbeza hartu eta barre algarata batzuk egiteko.”

[BAI ala EZ?]

15 eguneko aitatasun baja nahikoa al da?

BAI %76

“Bai, aitarentzako nahikoa da. 15 egunetan emakumeak badauka osasuntsu jartzeko denbora eta aita lanera itzuli behar da. Hasierako egunetan lagundu behar du etxean.”

EZ %24

“Ez, niretzako hilabetera luzatu beharko litzateke. Erditze ondorengo sindromea gogorra izaten da amarentzat eta aitak egin behar dio tira familiari.”

Datorren asterako... 106 lagun hil dira errepidean Aste Santuan, iaz baino 4 gutxiago.
Puntu bidezko gida baimenak izan al du eraginik gidariengan?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOTAKOAK



**Aiora Unzeta
Latatu**
[Otsailak 2]
Gorka eta Arrate



**Aiora Gonzalez
Moreno**
[Otsailak 25]
Ion eta Miren



**Duna Sanchez
Silva**
[Otsailak 26]
Roberto eta
Monica



**Naia
Zubizarreta
Astigaraga**
[Otsailak 27]
Mikel eta Judith



**Iker Izagirre
Gonzalez**
[Martxoak 4]
Xabier eta Leire



**Markel
Gonzalez Osoro**
[Martxoak 7]
Jose Luis eta Ana



**Ibai
Mendizabal
Alvarez**
[Martxoak 11]
Roberto eta Itxaso



**Unai
Barrenetxea
Arenas**
[Martxoak 13]
Iñigo eta Lorea



**Ane Iriondo
Osoro**
[Martxoak 19]
Joseba eta Idoia



**Jon Martin San
Martin**
[Martxoak 25]
J. Carlos eta Ane



**Nahia
Meabebasterretxea
Oñederra**
[Martxoak 29]
German eta Idoia

HILDAKOAK

Pilar Osoro • [70 urte] • Martxoak 1
Ignacio Oñederra • [78 urte] • Martxoak 1
Tomas Agirre • [82 urte] • Martxoak 1
Antonio Fernandez • [67 urte] • Martxoak 2
Julio Mendikute • [82 urte] • Martxoak 3
Mateo Jorge de La Merced • [73 urte] • Martxoak 5
Marina Fernandez • [82 urte] • Martxoak 8
Jose Jaio • [76 urte] • Martxoak 12
Consuelo Borrajo • [82 urte] • Martxoak 18
J. Maria Lizundia • [81 urte] • Martxoak 20
Pedro Mari Azurmendi • [56 urte] • Martxoak 21
Santiaga Toledano • [83 urte] • Martxoak 21

EZKONTZAK

Asier Arzamendi eta Dorleta Arozena [Martxoak 16]
Uchenna-Edwin Okoye eta M^a Angeles Jimenez [Martxoak 24]


Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz helbide elektronikoa honetara: barren@elgoibarkoizarra.com

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Bilgetia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

Lehen Hezkuntzako irakaslea

AINHOA AIZPURU



- 1 **Ikasle garaiko oroitzapen on bat?**
Bat baino gehiago. Baina, batez ere, egindako lagunak.
- 2 **Klasean bizi izandako anekdotarik?**
Asko. Behin, Sestaoko eskola batean, ikasleei azpeitiarra nintzela esatean, Azpeitia non zegoen eta ia euskararik hitz egiten zen galdetu zidaten.
- 3 **Zergatik aukeratu zenuen irakasle lanbidea?**
Betidanik atsegin izan dut. Nahiko argi eduki dut pertsonekin harremanetan egotera eta lan egitera zuzendutako ogibide batera dedikatzea.
- 4 **Galderaren bat erantzuten ez dakizula geratu zara inoiz?**
Batzutan apuroren bat edo beste pasatu izan dut, baina, beti saiatzen naiz erantzunen bat ematen, handik edo hemendik.
- 5 **Zaila al da ikasleei suspentsoa jartzea?**
Erraza ez da, baina, oso garbia bada, errazago jartzen da.
- 6 **Ikasle garaian gustuko zenuen irakasgaia?**
Hizkuntzak eta bereziki, euskara: idaztea, irakurtzea.
- 7 **Piper asko egindakoa al zara?**
Ez, ezta unibertsitatean ere, derrigorrezkoa baigenuen klasera joatea.
- 8 **Ikasleak ikastera bultzatzeko teknikaren bat?**
Ez da erraza. Agian gustuko dituzten gauzak aintzat hartzea apur bat.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



JUANAN AIZPITARTE *aita*



MARKEL AIZPITARTE *semea*

GALDERAK

- | | | |
|---|--|--|
| 1. Abesti gustuko bat? | 1. Errobi taldearen edozein. | 1. Dover taldearen abesti berria. |
| 2. Zerk jartzen zaitu haserre? | 2. Seme alabek kasurik ez egiteak. | 2. Lagunek tentatzeak. |
| 3. Munduko zer herrialde bisitatuko zenuke? | 3. Nepal edo Himalaya, paisaiengaitik. | 3. Txina. Dragoiak atsegin ditut. |
| 4. Zer egingo zenuke botere miragarriekin? | 4. Justizia lortu munduan. | 4. Gaixorik dauden pertsonak sendatu. |
| 5. Elgoibarko alkatea bazina? | 5. Zona berde gehiago jarriko nituzke. | 5. Eskola ondoko erreka garbitzea eskatu. |
| 6. Telebistako iragarki bat? | 6. ETBkoa: Indigenak Amazonias oihanean. | 6. Korrikaren iragarkia. |
| 7. Irakurtzen ari zaren liburua? | 7. Ehpeterl. | 7. Lau animalia protagonista dituen ipuin bat. |
| 8. Zer animalia nahiko zenuke zuri oparitzea? | 8. Txakur bat. | 8. Hamster bat eta untxi indiar bat. |

TXIKI inkesta

Zer amestu duzu azkenegoz?

Andrea Conde
15 urte

Mundua izoztua zegoela eta denbora geratu egin zela. Gu, gizakiak bizirik geunden.



Ainhoa Errementeria
15 urte

Balkoi batean aurkitzen nintzela eta norbaitek leihotik behera botatzen ninduela.



Andrea Garcia
15 urte

Hegazkin batean nengoen ni bakarrik eta bat-batean, hegazkinean ez zegoela pilotorik konturatu nintzen.



Maite Aizpiri
16 urte

Etxetik ihes egin eta Kubara igerian joaten nintzela.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

"EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK"
CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Oihane Azpiazu**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com



GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

K-104

Punk and roll estiloko Odola

MARTXOAN KALERATU ZUEN K-104 MUSIKA TALDEAK "ODOLA" IZENEO BIGARREN LANA. GUSTATU EDO EZ, ATENTZIOA EMATEN DUEN TALDEA DA HAU. ETA HORI ZIURTATZEKO AUKERA PAREGABEA IZANGO DUGU APIRILAREN 21EAN, GAZTETXEAN ESKAINIKO DUTEN KONTZERTUAN. DUELA 7 URTE INGURU SORTU ZEN TALDEA, ETA EGUN, LAU MUSIKARIK OSATZEN DUTE; BI ELGOIBARTAR, ERMUAR BAT, ETA PLAENTXIARRA BESTEA. ESKUALDEKO TALDEA DIRELA ESAN DIGUTE: TXIS (AHOTSA), MUTXOPA (GITARRA), TXEPE (BAJUA) ETA PEÑAL (BATERIA). BERAEGIN HIZKETAN EGON GARA ETA TALDEAREN NONDIK NORAKOAK KONTATU DIZKIGUTE. TALDEAREN BIDEOKLIPIA www.elgoibarren.net WEBGUNEAN IKUS DAITEKE.

K-104 taldea 2000. urte inguruan sortu zen, Fundizio-ko Mobidaren baitan. Morbos eta Mutilated Soul taldeak desegin ondoren, talde hauetako musikariak elkartu eta K-104 jaiotzen. Izena ere berezia dauka talde honetako. Batek baino gehiagok galdetuko zuten zer esan nahi duten hizki eta zenbaki horiek, ezta? Geuk ere galdera berbera egin diegu, eta hona azalpena. "K" berez "C" hizkia da, Claudio Coelho margolari portugaldarra ordezkatzeko du, errenazentista, XVI. mendean hil zena. Apaizei buruzko koadroak margotzen zituen, besteak beste. Honetaz gain, Madrilgo kale baten izena ere ba omen da eta azaldu



digutenez, "bertako 104 zenbakian Txikia Komandoak baxu bat alokatu zuen Carrero Blancori bonba jartzeko. Kotxeak hegatu egin zuen kalearen izena eta zenbakia dira K-104".

"Odola" bigarren lana

Taldeak 2003. urtean kaleratu zuen bere lehenengo lana. Taldearen izen bereko diskoa argitaratu zuten ordu hartan. 4 urte beranduago iritsi da bigarren diskoa, "Odola" izenekoa. 1a urtebeteko atzerapenarekin aterata da diskoa, izan ere, bi aldiz grabatu izan behar zuten. Lehenengo grabaketan arazoak izan zituzten soinuarekin eta berriro grabatu behar izan zuten dis-

koa, "talde handiek egiten duten moduan". 10 abestik osatutako lana da, eta gaiak gure ingurukoak dira: torturak, parrandak, kartzela, AHTa... Beraien hitzetan: "gure inguruko errealitatea jasotzen da abestietan, telebistan ematen ez digutena, baina eguneroko ziprizintzen gaituena".

4 urtetako lanaren emaitza da "Odola". Eta 4 urtetan denbora ezezik, taldea bera ere aldatu egin da eta musika estilokoa, batez ere, aldatuta nabarmena izan dute. Lehenengo diskoa *poupuri* bat izan zen, kanta bakoitzak bere estiloa zeukan eta batak ez zeukan bestearekin zerikusirik. Bigarren lana ordea, linealagoa aterata zaie, abestiek lotura handiagoa daukate beraien



BARREN



artean. Honela definitu digute disko hau: "Rock and roll gehiago dago, zaratatsua goa da, abiadura handiagokoa, distorsio asko ditu... azken batean hostia txarrez eginiako abestiak atera zaizkigu". Kantak sortzerako unean inprobisazioa izaten da nagusi. Musikariak dira eta musikazaleak. Instrumentua hartu eta soinua ateratzea gustatzen zaie, inprobisatuz. "Hasierako bertsioa berehala egiten dugu, baina abestia erabat amaitzea zaila da". Kostatuko lana izan dela aitortu digute taldekideek, baina azken emaitzarekin gustura geratu dira.

Zuzenean

Musika zaletuentzat beraien talde gustukoak zuzenean ikustea sekulako gozamen izaten da. K-104 taldeak zuzeneko indartsua dauka, berezia. Batzutan gonekin ateratzen dira, beste batzuetan marineritox jantzita, trajearekin ere atera izan ohi dira, eta eguneroko moduan ere bai. "Gu ikustera datorrena aho zabalik geratuko da", esan digute. "Gustatu edo ez, flipatu egingo dute". Edozein talderekin jotzeko prestutasuna erakutsi dute: "taldekide bakoitzari musika estilo desberdina gustatzen zaio, ezin gara bakoitza bereari tiraka hasi bestela, muturjoka amaituko genuke".

Datorren apirilaren 21ean eskainiko dute kontzertua Elgoibarko Gaztetxean. 7-

9 talde inguru izango dira bertan, Gaztetxe Martxa eskualdeko ekitaldiaren baitan. Hala ere, ez da hau izango Elgoibarren jotzen duten lehenengo aldia. Askotan izan dugu K-104 taldea zuzenean ikusteko aukera: "Punk and roll musika entzuteko aukera, umorea eta gertutasuna eskaintzen dugu zuzeneko emanaldietan. Jendea geratu egiten da gu ikusten. Bi diskoetako abestiak nahastuta jotzen dira, kontraste handia dago, jendeari atenzio handia ematen diogu". Hala ere, Elgoibarren "gehiegi" jo dutela aitortu digute, eta beraien mugak zabaltzeko leku desberdinetan jotzea hobe dela azaldu digute.

300 CD

300 kopia atera dituzte eta beraien asmoa ahalik eta gehien zabaltzea da. *Gure kabuz ala hil* banaketak (Abadiño) eta *Barbantxo beltza* (Eibar) arduratuko dira 100 ale banatzeaz eta gainerakoak taberna eta Gaztetxeetan eskuratu ahal izango dira. Elgoibarren, *Txuri-Beltz* eta *Iratxo* tabernetan eta Gaztetxean. 5 eurotan CDa, fanzinea eta egutegi bat eskaintzen dute. Fanzinea horretan, abestien letrak eta Ibaetako Manifestua aurkitu daitezke. Taldeak manifestu horren alde sinatu du eta presoen eskubideak fanzinean sartzearabaki dute.

da tuak

Sorrera

2000. urte inguruan, fundizioko mobidaren baitan.



Partaideak:

Txis (ahotsa)
Mutxopa (gitarra)
Txepe (bajua)
Peñal (bateria)


Diskografia

K-104 (2003)
Odola (2007)
Jo nazazu
AHT
Ametsetan
Game Over
Bart!
Nazkatuta
5 egun
Fighting for your rights
Odola
Azkeneko anarkista



ERAKUSKETA

Angel Cuerdoren “Mundu bete kolore” ikusgai Kultur Etxean



Gaurtik hasita, datorren apirilaren 29ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan Angel Cuerdoren “Mundu bete kolore” erakusketa. Bidaiari eta abenturazale tolosarrak munduan zehar eginiko bidaietan ateratako argazkien bilduma izango da. Hamabost urtez, bost kontinenteetan barrena piraguan, bizikletan, zaldiz edo oinez egin dituen bidaiak laburbilduko dizkigu. 100 argazki desberdinek osatzen dute erakusketa hau. Argazki bakoitzak bere testua dauka, irudiaren nondik norakoak argitzeko helburuarekin. Atsotitz eta ipuin zaharrek herriaren jakinduriaren be-

ri ematen dute. Erakusketaren osagarri modura musika tradizionala aurkituko dugu; tokian tokiko erritmo eta kantuak, kultura bakoitzean murgildu eta gozatzeko. Argazki erakusketa honen bidez, munduari begirada bat botatzeko aukera eskainiko digu Angel Cuerdok. Argazkiek, testuek eta musikak kultura bakoitzaren munduan sartzen lagunduko digute. Munduaren distira agerian uzten duen kolore-kultura nahastea aurkeztera dator oraingoan. Bisita orduak astelehenetik larunbatera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta igande eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Ongarri Zine Klubak ziklo berria estreinatuko du

Ongarri Zine Klubak ziklo berria jarriko du martxan ostegunean, apirilak 19. Kutsu kulturala daukan zikloa izango da. Ziklo honen baitan lau filma eskainiko dira eta bi zati nagusi bereiztuko dira. Lehenengo zatian bi pelikula eskainiko dira. Oso estilo personalekoak, zine komertzialean aurkitzen ez direnak:

Apirilak 19: “La Leyenda del tiempo”.

Apirilak 26: “Tropical Malady”.

Bigarren zatiko pelikulak kulturalagoak dira. Musikariak dira protagonistak eta musikariaren konpromiso soziala aldarikatuko da.

Maiatzak 3: “Llach, la revolt permanent”.

Maiatzak 10: “Agian”

“Picasso 1937, historia del Guernica” antzerkia gaur gauean Herriko Antzokian

Picassoren jaiotzaren 125. urteurrena eta Gernikako Bonbardaketaren 70. urteurrena direla-eta, Maskarada antzerki taldeak “Picasso 1937, historia del Guernica” antzezlanaren taularatuko du gaur, 22:15etik aurrera Herriko Antzokian. 1936. urtean girotutako antzerkia da. Espainian Gerra Zibila hasi da. Parisen 1937an egingo den Erakusketa Unibertsalerako prestaketak hasi dira eta Picassori margolan bat egiteko eskatu diote, Espainiako pabilioian leku handi eta nabarmena izango duena. Espainiatik berri larriak iristen dira etengabe eta margolariak Kondor Legioak Gernika txikitzen duen unea islatuko du. Hortik aurrera, Picassoren maisulanak Estatu Batuetara egindako bidaia kontatuko digute.



ESKERTZA

2007ko apirilaren 5ean hil zen **Ramon Gorriti Agirre**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LEHIAKETAK

Trinitate jaietako tanborradaren kartel lehiaketa martxan da



Udaleko Kultura Batzordeak 2007ko Trinitate jaietako tanborradaren kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. 18 urteik gorako edonork hartu dezake parte. Teknika libre izango da, baina derrigorez agertu beharko da ondorengo testua: "Elgoibarko danborrada 2007". Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Lanak apirilaren 24rako aurkeztu behar dira Kultur Etxean.

Lehiaketa honetan parte hartzeko interesa dutenek Udaleko Kultura Zerbitzuan jaso dezakete informazio gehiago (943742158).

"Txitxarra ta inurria" haurrentzako antzerkia izango da domekan Herriko Antzokian

Markelñe Antzerki Taldeak "Txitxarra ta inurria" antzezlanaren aurkeztuko du datorren domekan, arratsaldeko 16:30ean Herriko Antzokian. Plastikak, olerkiak, komikotasuna, material desberdinen esperimentazioa, eritimoa eta interpretazio jokoa izango dira oinarritzeko osagaiak. Haurrentzako antzerkia den arren, helduak ere harritu eta hunkitzeko antzezlanaren ezaugarriak ditu. Txitxarra eta inurriaren arteko desberdintasunak azalduko dizkigute aktoreek. Inurriak indar handiz egiten du lan etengabe. Txitxarrak ordea, oztopoak jartzen ditu bidean eta itxuraz aisiaz gozatzen du. Hau guztia gizakien bizimoduan islatzen da eta hori erakutsiko digute.



Eskulan ikastaroa Haizea Emakume Taldearen eskutik

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, eskulanen ikastaroa hasiko da datorren astelehenean, apirilaren 16an. Erika Vargak eskainiko duen ikastaro hau ekainaren 25era arte luzatuko da. Oihal gainean margotzeko teknikak ikasiko dira bertan, batez ere. Ikastaro hau astelehenean eskainiko da, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara Haizea Emakume Taldearen lokalean. Bertan parte hartzeko 40 euro ordaindu beharko dira. Interesatuak Pitxintxu dendan eman dezakete izena.

"Cafe teatro" emanaldia Gaztetxean

Euskal Herrian bizi den Macrea aktore irlandarrak, "Cafe teatro" estiloko emanaldia eskainiko du gaur gauean Elgoibarko Gaztetxean. "The Intrepid Fucking Irish" izenburua duen emanaldia ekarriko digu artista honek Irlandatik Elgoibarrera. Umorez beteriko ikuskizuna izango da. Aktorearen bizimodua kontatzen du eta bereziki, Euskal Herrian bizitzen daramatzan 8 urteak laburbilduko dizkigu.

Macrea ETB2ko "La gran Evasion" saioan egin zen ezagun. Gaztelera ikasterakoan izandako zailtasunak, bitxikeriak, Ipar Irlandako gatazkan bizitzea nolako izan zen eta bere familiaren berri emango digu, besteak beste, barre artean.

Umorea eta aktorekiko gertutasuna izango dira emanaldi honen ezaugarri nagusiak. Ordubeteko saioa izango da, eta gaueko 22:00etan hasiko da.



ESKERTZA

2007ko apirilaren 4an hil zen **Pakita Iriondo Bergaretxeren** sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKU PILOTA

Atxotegi eta Loiola Udaberriko Pilota Txapelketako irabazle



Lagunak pilota taldeko Atxotegi eta Loiolak osaturiko bikoteak, aurtengo Udaberri Txapelketako finala irabazi dute, pasa den ostiralean, Lizaso eta Iraetaren aurkako neurketan 22-9 emaitza lortu ondoren.

Partidua Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan ospatu zen eta Lagunak zein Behar Zanako 1. mailako pilotariak aurrez aurre aritu ziren. Norgehiagoka hasi eta berehala erakutsi zuten euren nagusita-

suna talde elgoibartarreko pilotariak. Atxotegi eta Loiolak mendean hartu zituzten Lizaso eta Iraeta bilabonarrak eta poliki-poliki, partidua aurrera egin ahala, nagusitasunez irabazi zuten.

Debarroko txapelketari dagokionez, aipatu, iragan den asteartean, Atxotegi eta Loiolak, Eibarko Etxaniz eta Egaña pilotarien aurka neurtu zituztela euren indarrak. Norgehiagoka 22-16an bukatu zen, Lagunak taldearen alde.

Morkaikorekin mendi irteera Angulo-Orduñara

Datorren domekan, apirilak 22, Angulo-Orduñara mendi txangoa antolatatu du Morkaikok. Irteera goizeko 8:00etan egingo da Plaza Handitik. Ibilaldia Anguloko portuan ekingo diote mendizaleek eta otsoen lurraldea den Araba eta Burgoseko parajeetan zehar ibiliko dira, ondoren ekialderantz jotzeko. Gero, Tologoriko gaina igoko dute, eta hemendik Lendoño Goikoa auzora jaitsiko dira, Barreillako pasabidetik. Ibilbide osoan paisai ederrak izango dituzte bide lagun. Izena emateko, Morkaikoren egoitzara jo daiteke: (Errosario kalea, 17) astelehen eta ostegunetan 19:00-20:30. Bazkideek 7 euro eta ez direnek, 10 euro.

Siula Grande filma aurkeztuko du Aritza Monasteriok datorren asteazkenean

Morkaiko Mendizale elkarteak antolatutako udaberri mendi emanaldien baitako bigarren saioa eskainiko da, datorren asteazkenean, apirilak 18, Aritza Monasterio mendizale elgoibartarraren eskutik iluntzeko 21.30ean Musika Eskolan.

Film honek, Aritzak, 2001eko uztailean, Víctor Mlinar, Matic Jost eta Tomaz Zerovnik esloveniarrak lagun zituela, Huayhuash mendikateko Siula Grande mendira (6344m) eginiko espedizioa erakusten du. Hemen, bide berri bat ireki zuten: Noches de Juerga ED 65-90ª M6 izenekoa eta bide honi esker, Euskal Mendi Federakundearen mendi ekintzarik onenaren saria jaso zuten. Izotzezko urjausi, elur malda gogor eta haitzezko hormetan gora, gailurreko aristara heldu ostean, tontorre-



rako 50 metroko desnibela bakarrik falta zitzaizenez, haizea gogor jotzen hasi zen eta goizaldeko 4retan elurra hasi zen. Gehiago itxaron gabe, 21 rapel egin ostean iritsi ziren mendiaren oinera.




ESKERTZA

2007ko martxoaren 31n, 71 urte zituela hil zen **Bonifacio Sangrador Epelder**en sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKUBALOIA

Tecnifuelle senior mutilak Euskadiko eskubaloi txapelkun geratu dira



Elgoibarko senior mutilen eskubaloi taldeak, Tecnifuellek, aurtengo denboraldiko Euskadiko liga txapelketa irabazi du, iragan den apirilaren 1ean jokaturiko partiduan. Neurketa Bilbaon jokatu zen eta bertan Escolapios taldea 24-30 garaitu zuten.

Modu honetan, Jose Manuel Ruizen taldeak, Espainiako Ligarako igoera fasea jokatu du maiatzaren 4an, 5ean eta 6an.

Oraindik, Espainiako Federazioak ez du erabaki non jokatu diren igoera faseak, baina, Rafa Alvarez, Sanloko presidentek jakinarazi digunez, Elgoibarren izatea espero dute, eta dagoeneko eskaria egina dago.

Lojantzi taldea

Lojantzi taldeko senior neskek, berriz, Euskadiko txapelketa sailkatu dira eta apirilaren 20an, 21ean eta 22an Espainiako Ligarako igoera fasea jokatu dute Nafarroako Barañain herrian. Ekipo hauek dira bertan arituko direnak: Lojantzi Elgoibar (Euskadiko bigarrenak), Siero DERBM (Asturiasko lehenak), BM Chapela (Galiziako lehenak) eta Lagunak (Nafarroa). Igoera fase hauek suposatzen duten gastuari aurre egiteko SANLO Eskubaloi taldeak erriak kale-ratu ditu, euro batean. Zozketa honetako saria, Tenerifera bidaiari bat izango da bi pertsonentzako, sei egun eta bost gau pen-tisio erdian, lau izarretako hotel batean.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 3 - Real Union 1
 Eibar 0 - Elgoibar 0 (erreg.)
 Anaitasuna 2 - Elgoibar 0 (jub.)
 Elgoibar 4 - Umieta 1 (kad.)
 Touring 1 - Elgoibar 1 (o. inf.)
 Elgoibar 1 - Real Union 1 (inf.txiki)
 Anaitasuna 2 - Elgoibar 0 (neskak)
 Tolosa 0 - Haundi 2

ESKU PILOTA

Debaroko Txapelketa

Arrasate 22 - Lagunak 6 (kad.)
 Arrasate 18 - Lagunak1 22 (nag.)
 Lagunak1 22 - Aretxabaleta1 6 (nag.)
 Lagunak2 2 - Oskarbi 22 (nag.)
 Lagunak 22 - Eibar 4 (jub.)
 Lagunak (Abxotegi Loiola) 22 - Eibar (Etzaniz-Egaña) 16 (nagus.)

ESKUBALOIA

Aterpe 15 - Bergara 4 (inf.nesk.)
 Aiala A 21 - Olasa 17 (inf.nesk.)
 Tecnifuelle 30 - Escolapios 24 (sen. mut.)
 Basauri 23 - Lojantzi 25 (sen.nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan
Zapata, 14
 17:00 Haundi - Zalla

ESKU PILOTA

Ikastolako Frontoian
Barixakua, 13
 22:00 Lagunak - Eskariatza (kad.)
 Lagunak 2 - Aretxabaleta 2 (nagus.)

Elgoibarko espeleologia taldeak topaketak antolatu ditu

Elgoibarko espeleologia taldeak, espeleologia topaketak antolatu ditu apirilaren 27, 28, 29, 30 eta maiatzaren 1erako. Topaketa hauek Izarraitzeko mendigunean burutuko dira eta inguruetako haizuloak bisitatuko dituzte.

Egitaraua ondorengoa da: apirilaren 27an, ostirala, topaketa hauetan parte hartuko dutenei ongietorria egina zaie Aubi-

xako baserrian. Hilaren 28 eta 29an, berriz, egun pasa joango dira hainbat kobazulo-ren esplorazioa eta topografia eginez. Astelehenean, apirilak 30, inguruko haizuloak bisitatuko dituzte eta asteartean, bazkaria eta azken egurra. Espeleologia jardunaldi hauetan izena ematen dutenek, Aubixa barmetegian izango dute ostatua eta bertan, 4 gosari, 3 afari eta astearteko bazka-

ria emango zaizkie. Beharrezko materialaren artean, espeleologia ekipamendu pertsonala, topografia tresnak, sokak... eta lo egiteko zakua behar dira. Pertsona bakoitzeko 80 euro izango da ordaindu beharreko prezioa. Izena eman nahi duen orok, apirilak 23a baino lehen eman dezake. Kontakutak: 630128603 (Jaime, egunez) edo 646369410 (Paolo, gauzez).

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Pisu salgai Zumaian. Egoera onean. 2 logela, komuna, sukalde, egongela. Bista ederrak. Dena kanpora. Erdialdean. Itzurun hondartzatik 500 metrora. 280.000 euro. ☎ **943537271**

▶ Pisu salgai Zumaian. Berritua. 2 logela. Itzurun hondartzatik 2 minutu. Jantzigela handia. Egongela. Bista ederrak. Sukaldea maila goreneko materialarekin.

☎ **943535214**

▶ Altzolan etxe ia berria salgai. 3 logela, bi komun, egongela-jangela. Garaje itxia eta trastelekua.

☎ **650243359**

ALOKAIRUA

▶ Etxe txikia alokatzen dut erdialdean. ☎ **660042159**

▶ Adineko emakumeak pisu txikia hartuko luke alokairuan.

☎ **659399824**

▶ Elgoibar edo inguruan logela bat hartuko nuke alokairuan.

☎ **667733671 (Arrate)**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **695788742**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. ☎ **665735660**

▶ Garaje itxia alokatzen da Leku Ederren. ☎ **652771184**

▶ Garaje marraduna salgai Ikastola ondoan. Estalia.

☎ **943743578**

▶ Garaje marraduna alokatzen da San Roke kalean. ☎ **943741436**

[AUTOAK]

▶ Hyundai Pony autoa salgai. 151.000km. Egoera oso onean.

☎ **665714728**

▶ Renault Clio 1.5dci autoa salgai. 2004koa, 5.100km. Egoera onean, beti garajejan. ☎ **686762146**

[BESTELAKOAK]

▶ Mutrikun txalupa salgai. 4,09x1,63. Puntala 0,70m, 1.300kg. Diter motorra, 9 zaldi. Fibrazko kaskoa, ur hustuketa berez egiten du. 4.000 euro.

☎ **665728662**

▶ Ordenagailu portatila salgai. 1.7GHz centrino, 1.6DDR, 80G disko gogorra. Egoera onean.

☎ **646160480**

▶ Bigarren eskuko aulkiak salgai.

☎ **620810120**

▶ Hozkailua, arropa garbigailua salgai (Opsen kontsumo bajukoa), mikrouhina (Linea). 500 euro. Mendiko bizikleta oparitzen dut.

☎ **666148037**

▶ Lursaila salgai Eibarren. 22.500m². 16 urteko pinuarekin.

☎ **943033503**

▶ Lasturren baserria salgai, terreno eta guzti. 10 hektarea.

☎ **943740037/605741485**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Mutila peoi edo garbiketatarako prest. ☎ **679759349**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **679759349**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648835924**

• Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **647190246**

• Karaokedun mutila tabernetan lan egiteko prest.

☎ **671171503**

• Emakumea umeak, nagusiak zaindu, garbiketak egin, kamarera... Esperientziaduna.

☎ **638527915/943530132**

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest egunez eta gavez. Esperientziaduna.

☎ **675711658**

• LH eta DBHko partikularak ematen ditut. ☎ **943531054**

• Emakume euskalduna gaixoak zaintzeko prest arratsaldez edo gavez. ☎ **626438248**

• Mutila lanerako prest.

☎ **654604798**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketatakarako prest. ☎ **671476869**

• Mutil gaztea pintore, igeltsero edo kamarero lanetarako prest.

☎ **610632782**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest.

☎ **606169667**

• Ingeniari Teknikoak DBH eta Batxilergoko klase partikularak ematen ditu. (Mate, fisika, kimika...) ☎ **653733217 (Miren)**

• Emakumea ostalaritza edo garbiketatakarako prest.

☎ **666032715**

• Neska garbiketatakarako lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. ☎ **638527915**

• Bi gizon igeltsero, garbitzaile, zaintzaile lanetarako prest.

☎ **638494501**

• Esperientziadun emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ **638515953**

• Mutil gaztea nagusiak zaindu edo garbiketatakarako prest.

☎ **638515953**

• Emakume elgoibartarra garbiketatarako prest. ☎ **699717008**

• 50 urteko emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **648842509**

• Emakumea garbiketatakarako egin, nagusi edo umeak zaindu, sukaldaria... ☎ **654604798**

• Emakumea garbiketatakarako egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **667709439**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **671343612**

• Neska nagusiak edo umeak zaindu, garbiketatakarako egin...

☎ **617056828 (Lili)**

• Neska nagusiak edo umeak zaindu, garbiketatakarako egin...

☎ **666273122 (Marlene)**

• Neska lanerako prest.

☎ **638520765**

• Mutila igeltsero edo pintore laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketatakarako prest.

☎ **650813847**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketatakarako prest. ☎ **650813847**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin.

☎ **660511781/943742330**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **663569263**

ESKAITZA

• Sukaldari laguntzailea eta garbitzailea behar dira.

☎ **943127334**

• Pertsona euskalduna behar da gaveko 20:00etatik goizeko 9:00etara umeak zaintzeko. 3 hilabetez. ☎ **620597914**

• Mendaroko kafetegian lan egiteko sukaldaria eta sukaldari laguntzailea behar dira.

☎ **943030150**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

• Elgoibar Ikastolak HH 1. eta 2. ziklorako, LH eta DBHrako irakasle poltsa osatzeko kurrikulumak behar ditu. ☎ **943744441**

• Jatetxerako kamarera behar da.

☎ **943 121262**

• Igeltseritza enpresak esperientziadun mutila behar du.

☎ **605705204**

• Kamareroa behar da tabernetan lan egiteko. ☎ **943743196**

• Eibarko enpresa batek I+D+In lan egiteko ingeniari tekniko industrialara behar du. Bi urteko esperientziarekin. CV. 263 postakutxilara bidali.

☎ **943121608.**

• Eibarko enpresa batek ingeniari elektronikoa behar du.

☎ **943121608.**

• Eibarko enpresa batek makina berezien montadore mekanikoa behar du. ☎ **943121608.**

ABISUAK

• Batxilergoko matematika klase partikularak hartuko nituzke.

☎ **943744394**

• Korrika egunean argazki kamera funda aurkitu nuen memoria txartelarekin. Udaltzaingora eramanez.

• San Lorentzon, Antxola baseri inguruan Colie arrazako txakur emea azaldu da.

☎ **943743965 (Pedro)**

• Udaletxe atzean belarritakoa galduta nuen hilaren 25ean. Hari berde eta zuriekin.

☎ **943351097**

• I. Batxilergoko klaseak hartuko nituzke.

☎ **627104915**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Antonio!** 36 urtel 40 urtiak aurrian dituzu. Ondo pasa eguna eta larunbatera arte. Koadrilakoen partez.



▶ Zorionak **Marian** atzo urteak egin zenituelako. Tarta goxoa prestatu! Muxu bat denon partez, batez ere, Uraitz eta Garazi.



▶ Zorionak **Onintza** hilaren 15ean 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Lorena** gaur urtebete egin duzulako. Familiakoen eta bereziki, David lehengusuaren partez.



▶ Zorionak **Manuela** Alkorta 93 urte egin zenituelako hilaren 6an. Seme-alaba, bilobak eta Cameliaren partez.



▶ Zorionak **Xabi Arriola** apirilaren 7an 3 urte egin zenituelako. Patxo handi bat Oierren partez.



▶ Zorionak **Maialen** hilaren 13an urtebete egingo duzulako. Gurasoen eta anaitia Markelen partez.



▶ Zorionak **Nerea** gaur 8 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Noraren partez.



▶ Zorionak **Julia!** Atzo zure eguna izan zelako. alaba eta iloben partez.



▶ Zorionak **Irati** zure 5. urtebetetzear. Ane eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Eider!** Apirilaren 7an 2 urtetxo egin zenituelako, sorgintxo! Etxekoan partez.



▶ Zorionak **Roke** hilaren 5ean 4 urte egin zenituelako. Etxekoan eta batez ere, anaitia Ionen partez.



▶ Zorionak **Eneko** atzo 9 urte egin zenituelako. Familiakoan partez. Muxu handi bat.



▶ Zorionak **potxolita** zure 1. urtebetetzear. Etxekoan eta bereziki, Ane, Malen, Ander eta Gorkaren partez.



▶ Zorionak **Jokin** gaur 7 urte egin dituzulako. Anaren partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Ion** asteartean 6 urte egingo dituzulako. Anaren partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Julen**, potolin! Familiakoan eta bereziki, Naiaren partez.



▶ Zorionak **Beñati!** Pastela oso goxoa zegoen. Muxuak ikastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Eritz** igandean 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez. Ondo pasa!



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



URKIDI
AHOLKULARITZA



Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



[OKINDEGIA]



15 igandea IBARRENEA



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ
13 Ibañez
14 Bidasolo
15 Bidasolo
16 Etxeberria (*Santa Ana*)
17 Fernandez
18 Yudego
19 Zabaleta
20 Etxeberria (*Errosario*)

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



ESKERTZA

2007ko apirilaren 9an hil zen
Maria Arrieta Usabelen sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko apirilaren 1ean hil zen
Jose Garitagoitia Arrutainen sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2006ko apirilaren 5ean hil zen
Maria Mendikute Ariznabarretaren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Iñaki Lariz Iriondo
2002ko apirilak 5

V. URTEURRENA

*“Argi bat itzali da
hemen lurrean
berri bat piztu da
han zeru ederrean
beti jarraituko duzu
gure bihotzean”.*



[13 BARIXAKUA]

19:00 "MUNDU BETE KOLORE" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Angel Cuerdo bidaiari tolosarraren bidaietako argazkiak
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Apirilaren 29ra arte
Antolatzailea: Kutxaren Gizarte-
Ekintza

22:00 THE INTREPID FUCKING IRISH

Umirezko ikuskizuna Macrea
irlandar-euskaldunaren eskutik
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte asanblada

22.15 ANTZERKIA

Antzezlan: "Picaso 1937, historia
del Guernica"
Taldea: Maskarada Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

[14 ZAPATUA]

17:00 ANTZERKI TAILERRA

Taupadaren lokalean, Olaizaga
kiroldegian (17:00-19:00)
Antolatzailea: Taupada Antzerki
Taldea
Zapatuero ekainera arte

[15 DOMEKIA]

16:30 "TXITXARRA ETA INURRIA" ANTZERKIA

Taldea: Markeliñe
Herriko Antzokian
Sarrerak: egunean bertan salduko
dira lehiatilan
Debabarreneko XXIII. eskolarteko
antzerki erakusketa

[17 MARTITZENA]

16:30 HITZALDIA

Gaia: Bizkarreko mina: zergatiak
eta prebentzioa.
Hizlaria: Michel Marmier doktorea,
bizkarrezurreko espezialista
Altolako jubilatuen lokalean
Antolatzailea: Zubibai auzotarren
elkartea

[18 EGUAZTENA]

21:30 ARITZA MONASTERIOREN IKUS-ENTZUNEZKOA

Izena: "Siula Grande. Noches de
juerga"
Musika Eskolako auditorioan
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

[20 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urteik 6 urtera bitarteko
haurrentzat
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "Bajo el sol de la Toscana"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskame Larrinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

ZINE KARTEDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Eutsi!» (Euskaraz)
14, zapatua: 19:30-22:15
15, domekia: 19:30-22:15
16, astelehena: 21:30
«La leyenda del tiempo» (Z.K.)
19, eguena: 21:30
«El velo pintado»
20, barikua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«El velo pintado»
13, barixakua: 19:30-22:15
14, zapatua: 17:00-19:30-22:15
15, domekia: 17:00-19:30-22:15
16, astelehena: 19:30-22:15
17, martitzena: 19:30-22:15
18, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

S I N O P S I A K

«Eutsi»

Zuzendaria: Alberto J. Gorritiberea
Antzezleak: Anjel Alkain, Asier Hormaza.
Kepa eta Martin lagun mina dira, txirindularitza zaleak. Lan egiten duten enpresa, Saldix Corp., 2 urtez dabil gatazkan langileekin. Enpresa beste nonbaitera eramango dutela zabaldu denean, Martin aita izateko puntuan dago. Biak ikamika hasiko dira, Kepa langabeziak sorturiko egoerara egokitu baita. Beren adiskidantza apurtzeaz dagoen helburu bat sortuko da: beren protestak Frantziako Tourrera eramatea.

«La Leyenda del Tiempo» (Z.K.)

Zuzendaria: I. Lacuesta.
Antzezleak: Israel Gómez, Makiko Matsumura.
Israelen izeneko haur baten istorioa kontatzen digu dokumental honek. Abeslari tradizio handiko familia bateko kidea izan arren, aitaren heriotza eta gero gehiago abestu ezingo duela geratu da Isra. San Fernando uhartetik urrun bidaiatzeko ametsarekin bizi da. Makiko Matsumura, berriz, arrotzak zaizkion tradizioak bereganatzeko iritsi da Isra bizi den lekura. Makikok gaixorik du aita.

Atzera hegira



1956 . urteko erretratu zahar hau **Valerio Iñiguez**ek laga digu. Pilar Ikastetxean ateratako argazkia da hau. 2. mailako mutikoak dira denak, 9-11 urte ingurukoak. Gaur egun, Elgoibar eta inguruko herrietan bizi dira guztiak. Ikasle hauen %60ak erreminta makinaren alorrean egiten du lan. Gogora ditzagun zein diren gazte hauek.

1. ilaran: **Jesus Mari Barrenetxea, Jose Inazio Elustondo, Frantzisko Betelu, Carlos Ortueta, Justo Aranberri, Francisco Gabilondo, Alfonso Toral, Joakin Loiola (t), Jose Manuel Aranberri, Manuel Zubiaurre, Jose Inazio Elkoroiribe.**

2. ilaran: **Pedro Etxeberria, Migel Anjel Conde, Juan Jose Ondarza, Patxi Zabaleta (t), Manolo Gurrutxaga, Jabier Saez, Jose Antonio Osoro, Jose Ramon Artola, Anton Zubiaurre, Migel Anjel Garate, Luis Mari Muruamendiaraz (t).**

3. ilaran: **Jesus Mari Astigarraga, Juan Esnaola, Jose Luis Tadeo, Rosendo Egurrola, Juan Iriondo, Juan Bautista Izagirre, Valerio Iñiguez.**

4. ilaran: **Julian Uribe, Antonio Garcia, Inazio Manuel Bereziartua (t), Jose Inazio Garagartza, Antonio Jesus Bores, Patxi Juaristi, ezezaguna, Jose Luis Fernandez eta Luis Oleaga.**



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

MAHASTI



Jose Angel Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72



Judith

EDERGINTZA

Osasun,
edertasun
eta ongizatean
espezializatua



ESKAINTZA BERRIA

AURPEGIKO LIFTING-a

Kirurgia estetikoaren
ordezkoa

Errosario kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667 742 118



Makina
Erremintaren
Instituto
Instituto de
Maquina
Herramienta



HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

BERRIKUNTZAK 2007/08 ikasturtean:

Goi-Mailako Ziklo ELEANITZAK:
euskarra/gaztelera/inglesa

PROIEKTUETAN oinarritutako
irakaskuntza

15 urteko esperientzia

Erdi-Maila A/D ereduak

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

Goi-Maila A/D ereduak

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa*
- Industri ekipoen mantenimendua*



... Informa zaitez!

Ate irekiak:

Apirilak 21 eta ekainak 2 goizeko 11:30etan

IMH, Azkue Auzoa, 1 - ELGOIBAR - Gipuzkoa - Tel.: 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es

G & M

Jantzidenda

escorpion

ana sebastian

guitare

M HONGO



Apirilaren 16tik
aurrera
obrak direla eta
MAIDAGAN
dendan
aurkituko
gaituzu.

miss  sidecar

Zen Spirit 

Lois 

Sabbath


GSUS

Apirilaren 16tik 28ra
LIKIDAZIO APARTA!



San Bartolome, 23 • Tel.: 943 74 46 17